

ZERTAZ ARI GARA IPUINEZ ARI GARENEAN?



**Rekalde Luzarraga, Itziar
Ipuin kontalaria**

LABURPENA

Herrien historia ahoz kotasunaren garapenari lotuta dago, planetaren toki guztietan. Imajinarioa deitzen dugun hori belaunaldiz belaunaldi joan da sortzen eta garatzen gizarte bakoitzean, identitate pertsonala eta taldekoa sortu arte.

Ipuinek, besteak beste, gizarte bakoitzaren sorreraren oinarriak gordetzen dituzte; ulergaitza ulergarri bihurtzen dute, Mitoak sortuz; beldurrak uxatzen dituzte eta bizitzan aurkituko ditugun arriskuak ezagutzen eta garatzen irakasten digute. Heziketaren prozesuan menderatu behar ditugun pausoak ematen laguntzen digute, munduarekin ditugun loturak adieraziz... Eta horrela izan da beti ipuin tradizionalak aztertzen badi-tugu. Beti eta leku guztietan, gainera. Baina zer gertatzen da gaur egun mendebalde honetako gizartean? Galdu dugu ahoz kontatzeko ohitura; galdu dira guneak, kontariak, ikus-entzunezko tresnerien mesedetan. MEMORIA ari gara galtzen.

0. SARRERA

Izan dira eta badira Euskal Herrian ni baino adituagoak gai honi buruz hitz egiteko hemen eta gaur, noski, eta horiei guztiei nire eskerrak, irakatsi didaten guztiagatik.

Egitarauan ondo ageri den bezala, Ipuingintzaz, ipuinez mintzatzera etorri natzaizue, eta horretara goaz oraintxe bertan:

1. ZERTAZ ARI GARA IPUINEZ ARI GARENEAN?

"Imajina ezazu zuhaitz bat zarela: zuhaitz bat baso batean, zuetariko bakoitza zuhaitz

bat, beste zuhaitzen alboan gela honetan, baso honetan. Zure adarrak lehortuak daude: ez hostorik, ez lorerik. Txoriek ere abandonatu zaituzte. Are gehiago, berdearen oroimena ere galduta duzu aspaldi. Udaberria ahaztua duzu. Ez dituzu sustraia sentitzen. Egarriz hiltzen ari zarela baino ez duzu sentitzen. Etsita zaude.

Itxaropen guztia galdu duzun une honetan, bat-batean, hezetasunaren usaina heltzen zaizu eta oroimen gozo bat barneratzen duzu. Zerua estali da, ilun dago: ekaitza dator. Zirrara ero batek inguratzen zaitu, adar puntetatik, enborretik azken sustraietaraino: gotik behera, behetik gora, eta berriro... Emozioz blai zaude dardarka, ur tanten irristadak zure gorputzetik zehar, enborretik zehar, fereka gozagarria imajinatuz. Eta prest zaude zaparrada jasotzeko; prest zaude bizitzeko; prest zaude hitzaldi hau entzuteko...”.

Hitzaldiaren barnean gaude jada ipuin honen bidez, ahozko hizkuntzaren bidez, hizkuntza baita ipuingintzaren tresna nagusia. Goazen aurrera:

1.1. Ekintza komunikatibo bat sortu dugu non emaile bat ageri den (ni neu, kontalaria) eta hartzaileak (zuok). Honaino ez dago ezer berezirik: oinarriko ekintza komunikatibo guztietan funtsezko elementuak direlako. Zer du berezia ekintza honek? Zuzena izan dela, bat-batekoa. Badakit hitzaldietan ere gauza bera gertatzen dela, baina gu ipuinaren bidez zuhaitz bihurtu gara bat-batean!

1.2. Egoera ludikoa sortu dugu. Esan dezakegu jolasean aritu garela? Baietz esango nuke nik.

1.3. Denok batera **taldea** egin dugu. **Kolektiboa** sortu dugu eta gutariko bakoitza partaide izan da bizi izan dugun esperientzian. Baso bat osatu dugu eta testuingurua aldatu dugu. Hauxe da, besteak beste, ipuinek taldeak egiteko eta pertsonak lotzeko duten indarra eta ahalmena.

Baina zerbait gehiago ere gertatu da:

1.4. Imajinazioa, irudikatze ahalmena, banakakoa nahiz gizataldearen iruditeria jarri dugu martxan. Talde-imaginarioa deitzen dugun hori belaunaldiz belaunaldi joan da sortzen eta garatzen gizarte bakoitzean, eta identitate pertsonala eta taldekoa finkatu du.

Irudimenaren bidez, ezagutzen ez duguna, barneratuta ditugun sentsazio-irudimenen bidez erreproduzitzen dugu. Adibidez, hemen gauden guztiok badakigu zer den zuhaitz bat, asko ikusi ditugu eta, badakigu hostoek, adarrek, enborrak, sustraiek osatzen dutela zuhaitza; are gehiago, askok badakizkizue horien guztien funtzioak. Denok, hemen gaudenok, gizatalde hau osatzen dugunok, badakigu zertaz ari garen “zuhaitza” aipatzen dugunean. Baina zuetariko bakoitzak zuhaitz jakin bat, besteengandik ezberdina irudikatu duela esango nuke, eta nahi baduzue, froga dezagun oraintxe bertan.

Era berean, badakigu zer den udaberria, gure udaberria, Euskal Herriko udaberria, exis-

titzen bada behintzat (arabarrok, batez ere lautadakoak, zalantzak ditugu udaberriarekin eta udazkenarekin). Horregatik, udaberriaz ari garenean, "**geure** udaberria" irudikatuko dugu.

1.5. Emozioak. Zer gehiago gertatu zaigu? Nolako sentipenak izan ditugu? *"Txoriek ere abandonatu zaituzte..".* Uztasuna? *"Ez dituzu sustraiak sentitzen... / Egarriz hiltzen ari zarela baino ez duzu sentitzen".* Etsipena? *"...Itxaropen guztia galdu duzun une honetan...".* Atsekabetuta zaude? *"bat-batean, hezetasunaren usaina heltzen zaizu...".* Itxaropena? *"...ekaitza dator...".* Zoriontasuna? Eta ur tanten ferekak sentitu ditugunean goiti behera, behetik gora, leun, irristatzen, dardarka... zer sentituko dugu? Plazera, akaso?

Bidaia emozionala egin dugu, beraz. Ipuinetan emozioen eta sentipenen bideak egiten dira. Horregatik ipuin bat asmatzerakoan edo kontatu behar dugunean, erabiliko ditugun sentipenak (edo ipuinean agertzen direnak) zehazki zein diren jakin behar dugu. Hasi eta bukatu arte eutsi behar zaio bidaia emozionalari, haurrei kontatzen ari izen bagara, behinik behin. Ezin dugu ahaztu umek ipuinen bidez emozioak identifikatzen dituztela eta bat egiten dutela pertsonaiekin eta egoerekin. Kontalariak ondo identifikatu behar ditu eta argi azaldu, betiere emozioak askatzeko irtenbideak emanez (funtsezkoak: beldurra, sumindura/kolera, zoriontasuna/alaitasuna, tristura/etsipena, nazka/higuindura). Haurrek oraindik ezagutzen ez dituzten baina sentitzen dituzten emozioekin ari izen gara ipuinetan.

1.6. Ipuinek, ulergaitza ulergarri bihurtzen dute. Mitoak

Jarrai dezagun aurrera. Jakin badakigu zer den ekaitza, zer den ura, ur tanta, euria, zaparrada, hodeia, tximista eta trumoa. Orain, hemen gaudenok, 2010eko uztailearen 22an, erakarpen zientifikoen bidez atmosferan gertatzen diren fenomenoak ezagunak ditugu eta zergatik gertatzen diren ere jakin ahal dugu, betiere oraingo ezagutzaren arabera.

"Izena duen guztia omen da", "izena duenak izana du" gogoratzen zigun Barandiaranek, eta nik, behintzat, ez nuen esaldi hau entzun haurra nintzela neure gurasoengandik ezta nire aitona-amonengandik, baina egia berdaderoa da lehendabiziz entzun nuenetik, neurea, neure oinarrikoa sumatu nuela. Zergatik?

"Bazen behin lehenengo gizakia: lurraren gainean zegoen, eta ez bakarrik. Berarekin batera beste gizakiak ikusi zituen berari begira eta konprenitu zuen, denek konprenitu zuten era berean, bakoitza "Ni" zela eta denon artean "Gu" osatzen zutela. Konprenitu zuten konprenitzen, elkar ulertzen. Begirada zabalago batez ohartu ziren "Gu"rekin batera mugitzen eta aldatzen zihoazen "beste"ak zeudela, eta bizidunak zirela ulertu zuten. Bizidunak eta bizigabeak; orduan izendatu zituzten. "Gu"ren eremuari AMA-LUR deitu zioten. Bizitza eta heriotza.

Baziren ere lurra aldatzeko, eta lurraren gainean zeudenengan eragina zutenak:

Gainekoak eta Azpikoak, zerutik eta lur azpitik datozenak, ulergaitzak, menderaezinak. Zer egin orduan? Lehendabizi izendatu: Ilargi, Ekhi, Ekaitz, Odei... goikoei; Herio, Gaueko... behekoei. Horien guztien jainkosa eta amalurraren kudeatzaile, Mari aukeratu zuten: unibertsoaren ama eta oro har ilargiaren, eguzkiaren, gizakien, piztien eta landaren ama, paradisu harmoniazko, zoragarri eta perfektu bateko jainkosa. MITO-AK sortu zituzten, beraz, eta bakoitzaren izaera, botere, ahalmen eta egiteko zehatzak ezarri zituzten. Batzuk gizakien lagunak ziren, beste batzuk etsaiak. Bitartekoak aurkitu zituzten: heroiak: gizaki arruntek garatu ezinezko egoeretako lagungarriak izango zirenak, eta kontrarioak, garaipena lor zezaten oztopatuko zutenak. Eta hau horrela izan omen zen, horrela da eta izango da... ipuinak diren bitartean”.

Iruditeriaz ari naiz berriro ere, herrien arima denaz. Gure ametsak eta fantasiak imajinarioaz elikatzen dira, dudarik gabe.

1.7. Transmisioa. Denboraren poderioz osatzen joan da, eta doa, gure munduarekiko jakinduria. Baina nola heldu zaigu ezagutza? Ipuinen bidez, hau da, ahoz aho, mendez mende gure arbasoek helarazi digute. Izan ere, gizakiak beti izan du premia bere inguru ezagutzeko, ulertzeko, bizirik irauteko.

1.8. Fantasiaren bidez, ezagutzen edo ulertzen ez duguna sortu edo idealizatzen dugu. Zer egiten zuten eta egiten dugu ulertzen ez dugunarekin? Ulergarri bihurtu: ipuinak asmatu, sortu. Egoera eta toki errealetan nahastu egiten zituzten gure arbasoek gizaki arruntak eta fantastikoak (Lamina, Basajaun, Galtzagorri, Aideko, Intxisu, Herensuge, Jentila, Tartalo, Idditu) naturaren elementuak garatu ahal izateko edo, guxtienez, orekari eusteko. Askotan gizakia heroi bihurtzen zen (San Martin edo Martiniko), batzuetan botere magikoak zituzten (aztiak, sorginak), besteetan elementu magikoez baliatzen ziren (argizaria, san joan belarrak, txingarrak, eguzki loreak).

Har itzazue horiek guztiak, behar bezala nahastu eta zer aterako zaigula uste duzue? Munduaren sorrera, gizakiena, animalia eta landareena, gizataldearen arauak, naturarekiko harremanak, besteak beste.

2. IPUINAK ETA HAURRAK

Askotan, sarritan, gehiegitan ipuina aipatzen dugunean, hurrekin lotzen dugu berehala. Uste dugu haurtzarora mugatzen dela ipuinen esparrua: agian, fantasiaren eta irudimenaren esparruak, jolasak haurrentzat bakarrik gordetzen ditugulako. Behin adin jakin batera helduz gero, gauza serioagoetan, *funtsezkoetan* aritu behar garela uste baitugu. Uste okerra, zeren eta ez al da funtsezkoa orain arte aipatu duguna?

Ekintza komunikatiboa
Egoera ludikoa
Taldearen onarpena
Taldekide izateko gaitasuna

Irudikatze ahalmena sortzea
Emozioak ezagutu eta bideratzea
Ulergaitza ulergarri bihurtzea
Sormena lantzea
Hizkuntzaren garapena
Arreta eta adierazmena lantzea
Gizartearen kultura jasotzea

Nire ustean, ipuinaren esparrua ez da haurtzarora mugatzen, inondik inora, baina haurtzarora bada OINARRIZKO ESPARRUA. Ez diot hemen ezer gehituko orain arte aipatu dudanari, ez naizelako aditua pedagogian eta ez naizelako hezitzailea. Zorionez, badaude ikerketa ugari literatura eta heziketa bikain lantzen dituztenak.

Ipuin kontalaria naizen aldetik, hamaika saio egin ditut haurrei ipuinak kontatzen, ipuin tailerrak egiten eta hezitzaileei ikastaroak ematen, eta izan dudan eskarmentuaz baliatuko naiz hemendik aurrera.

3. NOIZ HASI IPUINEKIN

Haur jaioberri batekin harremanetan jartzen garen momentutik. Haur txiki batekin mintzatzen hasten garenetik. Sehaskako kantuak, poemak, aho-korapiloak baliagarriak dira hizkuntzaren prosodiarekin lehen harremanak izateko eta erregistro askotarikoak barneratzeko :

Baina ez horiek bakarrik: haurrari zuzendutako hitzak, maitasunezko hitz gozoak edota entzuten dituen helduen arteko elkarrizketak, doinu eta erritmoari lotuak heltzen zaizkionak... Mintzairaren bidez lotura emozionalak eta hizkuntzarekikoak sortzen dira amarekin, aitarekin eta hurbilekoekin, nola ez.

4. PROTOIPUINAK

Ipuinek, literaturen gainontzeko generoek bezala, badute gorde beharreko egitura jakin bat, bere-berezkoak dituzten elementuak, atalak, pertsonaiak, eta abar. Nire jardueran, euskaraz argitaratutako *ipuin* liburu ugari izan dut eskuartean, zorionez. Artikulu eta ikerketak irakurri ditut, eta hein handi batean, irakurketa sustatzeko helburua dute. Haur txikiarentzat (0-3) zuzendutako ipuin liburuek haurraren maila ebolutiboaren araberako egoerak azaltzen dituzte bikain, baina gehienak ez dira ipuinak.

Euskal Herriko Haur Eskolen Partzuergoak antolatuta, *iaz Ipuinak sortu eta kontatu* izenburupeko hiru ikastaro eman nituen haur eskoletako hezitzaileei zuzenduak. Ipuinak asmatzerakoan, oinarritzko egituraraino (aurkezpena, arazoa/gabezia, ekintza eta garapena) laburtu genituen gertaerak, eta haurren garapenaren arabera aukeratu genituen gaiak. Honako hauek dira ikastaro haien emaitzaren adibideak, Arrasateko taldeak eginikoak:

Malentxo Mukitsu:

Aurkezpena : *"Malentxoren sudurra gorri-gorri dago*
Arazoa/gabezia: katarro maltzurak gaixotzen du
Ekintza: Hartu zapia, kendu mukiak, Ziiintz!
Garapena: eta sudurra orduan poz-pozik dago"...

Malentxo Logure:

Malentxok den-dena nahi du ikusi
Baina bere begiak ezin ditu ireki
Goazen ohera eta pijama jantzi
Ametsak etortzeko ahoa isilik
Eta aitatzok emango dizu musua borobil!

Malentxo Goseti:

Kirrin korrón, kirrin korrón
Sabela zaratan
Kirrin korrón, kirrin korrón
Hutsik dago eta.
Kirrin korrón, kirrin korrón
Malentxok jango du
Tortilla patata

Gero, adinaren arabera, poliki-poliki elementu gehiago sartzen joango gara, estruktura konplexuagoak erabiliz, eta ipuintxo horiek, ipuin osatuaren hasierako edota barruko lelo bihurtuko dira.

Horrekin ez dut ezer berririk asmatu. Hona hemen nire aitxitxek irakatsi ziguna: Aitxitxe Modesto itsasgizona izan zen, kapitain-pilotu. Nik ezagutu nuenerako erretiroan zegoen, "terrestrea egina" haren esanetan. Aitxitxe gizon erromantikoa zen, bere ipuinetan behintzat. Gaiak: itsasoa eta baserriak. Esan dezaket bi saga, *Txuken baserriko gertakizunak* eta *'Gora' itsasontziko abenturak* sortu zituela. Saioa hasten bazen lelo honekin: *"Hor dator bapora, hiru palokoa, hoién tristuria, karabinerua"* bagenekien Goran gertatuak izango zirela eta saioa bukatzen zela *"porron, kabesa de melón, andria Morondon, gizona Antontxu, bere nobixotxua Emeteriotxu!"* kantarekin. Aldiz, *"Atzia, motzia Peruri pan, zure semea errotan, topa nauen asto bat, kendu notzan buztan bat, ipini notzan beste bat, errotan txiki, txiki, ta txiki, pirrin pan"* esanez hasten bazen, Txuken baserrira gindoazen.

5. ZERGATIK AHOZ

Orain arte azaldutako arrazoiez gain, niretzat oinarritzkoenatarikoa dena aipatu nahi

dut: ipuin kontaketa baten abiapuntua gaian, egituran, haurren egoeran, garapenaren mailan edo edukieta jartzen badugu bakarrik, oker gabilta. Garrantzitsuena uzten ari gara albo batera: **Harreman emozionala**. Aurrez aurre ahoz kontatutako ipuinaren bidez, haurren eta helduaren bitarteko lotura zuzena lortzen da: kontatzearen eta entzutearen ekintzak gertutasuna, isiltasuna eta kontzentrazioa eskatzen dituelako. Ipuina kontatzen dugun bitartean, umearekin batera abiatzen gara sentipenen bidaian eta haurra babestua sentitzen da. Horrela edozein ipuin entzuteko prest dago, abentura guztietan sartzeko prest, protagonistarekin batera gabeziatik, suminduratik, beldurretik... garaile aterako delako. Amak, aitak, kontalariak ez du adierazten Txanogorritxuri gertatu zaiona bakarrik, une horretan, kontatzen ari den istant horretan, berari gertatzen ari zaionaz ere mintzatzen da: hizkuntzaren arlo komunikatiboaren azalera eta funtsa adierazten ari da.

Gertutasuna, isiltasuna eta kontzentrazioa aipatu ditut, hau da, arreta. Arretak jarrera aktiboa eskatzen du, irudimena, analisisa eta diskurtsoaren asimilazioa martxan jartzen dituelako aldi berean. Horrela, umek ipuin bat zuzenean entzuten dutenean, ahalmen horiek jartzen dituzte martxan, bestelako estimuluen beharrik gabe. Aurretik esan dezadan ez dudala ezer ipuin liburuen edo editatzen diren ikus-entzunezkoen kontra, alderantziz, baina ez ote dute oraingo haurrek eskubiderik laminak, basajaunak, gameluak, Txanogorritxu edo otsoak euren erara irudikatzeke? Ez genituen guk, bada, gure printzesa edo mamu propioak

Tailerrak egin ditut eskola batean 7-8 urteko haurrekin. Ohikoa den bezala, ipuin tailerra eskatu zidaten irakurmena sustatzeko. Nik ahozkotatzen lantzeko proposamena egin nien eta buelta eman nion proposamenari: liburuak irakurriko zituzten haurrek, gero ipuinak asmatzeko eta kontatzeko. Hasieran, taldeetan banatu nituen eta taldekide guztiek ezagutzen zuten ipuin bat aukeratu zuten eta elkarri kontatu, istorio osoa finkatu arte (nork, zer, noiz, non, nola). Gero, ipuina irakurri eta gertaeraren xehetasunak bilatzeko erabili zituzten entziklopediak eta hiztegiak. Adibidez, gertaera basamortuan kokatzen bazen, basamortuari buruzko informazioa bilatu behar zuten: nolakoak dira basamortuan gauak? Eta ekaitzak? Nolakoak dira gameluak eta dromedarioak? Nola egiten dute salto katuek? Noiz joan zen Txanogorritxu amonaren etxera? Udaberrian? Udazkenean? Loreak bildu bazituen, neguan joan zen, akaso? Zer baino itsusiagoa zen sorgina? Zer baino beltzagoa zen gaua? Zer bezain polita zen bizikleta berria? Zerk bezain zorrotzak zituen letaginak otsoak? Zeren parekoa zen eguzkiaren argitasuna? Noraino heltzen zen negar malakoekin sortutako erreka?

Ondoren, ipuina landu eta denon aurrean kontatu behar izan zuten. Ekintza horren bidez adierazmena landu genuen batez ere, pertsonaiak, egoerak, emozioak deskribatzeko, gatazkak komunikatzeko hizkuntzak ematen dituen baliabideak erabiliz. Argi dago hiztunak hizkuntzaren baliabide komunikatiboak martxan jarri behar dituela, mintzaira zuzena eta erakargarria, entzuleen arreta lortu nahi badu.

6. IZAN DIRELAKO GARA

Eta orain zer? Zer gertatzen da gaur egun mendebalde honetako gizartean? Galdu egin dugula ahoz kontatzeko ohitura; galtzen ari dira guneak, taldeko jarduerak, ikus-entzuzko tresnerien mesedetan. MEMORIA ari gara galtzen. Egia da, kontaezin ahala dokumentu ditugula eta, Interneten bidez, lortu ahal ditugula hainbat eta hainbat erreferentzia. Bai, baina datuen memoriak dira horiek, eta ez emozioen memoriak: gure nor-tasuna markatuko duen irudikatze ahalmenak. Gizarte bakoitzari identitatea -kolektibo- zein pertsonala- emango diote irudikatze erabiliko dituen moduek eta ohiturek.

7. IPUIN SAIOAK

Ahozko ipuinak literaturaren atal bat diren bezala, ipuin kontaketa arte eszenikoaren barruan sartzen da. Jendaurreko ekintza performantikoa da; kontalari bakoitzaren estiloaren arabera, saioak modu batekoak edo bestekoak izango dira.

Lehen atalean transmisioari eta ipuin sorrerari buruz esandakoa, XX. mendea arte ohiko jarduna izan da kultura gehienetan. Erakarpen zientifikoaren zabalkuntza eta idazkiak gutxi batzuen eskura zeuden. Alfabetizazio prozesuak eta ikus-entzuzkoen garapenak gizarte orotara heldu dira, zorionez, baina, era berean, hautsi egin dute ahozko transmisioaren katea.

Hitzak, ordea, hegalariak eta nekaezinak dira, bide berrien bila dabilta temati, eta azken 60 urte hauetan, ahozko narrazio eszenikorantz egin dira urrats sendoak. Kontalaria etxeko esparrutik atera da eta kontalaritza bera ofizio bihurtzen ari da. Eskoletan eta liburutegietan batez ere ipuin saioak programatzen dira eta baikorrak izan behar gara uste dut. Azken 20 urteotan Euskal Herrian kontalari ugari ari dira ipuingintzaren ofizioa berreskuratzen eta modernizatzen, arte eta lanbide bilakatuz. Hala ere, nire jardunean sortu zaizkidan kezka eta zalantza aipatu nahi ditut hemen:

Jardueraren baldintzak eta duintasuna. Ipuin kontalaritza ekintza komunikatiboa den aldetik, arretarako oinarrizko baldintzak eskatzen ditu: ondo entzun eta ikusi behar da, tokiak eroso izan behar du, entzule kopurua neurtu behar da. Tamalez, ez dira behar bezala betetzen.

Egoera soziolinguistikoa. Euskara hizkuntza minorizatua da gure gizartean; gainera, ezagutza eta erabilera ez dago parekatua lurralde guztietan. Horregatik, ez da gauza bera Araban, Iruñerrian edo Enkarterrin kontatzea edo Zegaman, esate baterako. Araban, adibidez, ume gehienek ama hizkuntza gaztelera izanik, B edo D ereduan daude eskolatuak eta haur horientzat ipuin saioak euskaraz programatzen dira, hizkuntza ikasteko gehigarri modura. Hizkuntza menderatzen ez dutenez, ulergaitzak eta aspergarriak bihurtzen zaizkie ordubeteko saioak eta, ondorioz, arretaren defizita eta desmotibazioa besterik ez dugu lortzen. Saioen baldintzak berdinak dira hiztun normalizatuentzat edo oraindik hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat. Programatzaileek eta

kontalariok egoera horren aurrean hausnarketak behar ditugu egin, eta kontaktak beste era batera antolatu: iraupena eta entzule kopurua murriztuta, adibidez?

Helburuak: Saioak beste jarduerak sustatzeko programatzen dira. Kontalariok badakigu, ondo jakin ere, ahozko kontalaritzak balioetan hezten duela, terapeutikoa izan daitekeela, gizartearen kohesiorako bidea dela eta, gainera, irakurtzeko zaletasuna bultzatzen duela; baina ahozko narrazioa, batez ere, mintzairaren artea da, eta hitzen bidez entzule bakoitzarengan, komunikazio inguruan, plazera eragitea du helburua.

8. MAISU BATEN AHOLKUAK

Hona hemen, laburbilduak, Antton Irustak bere *Ipuina lantzeko gidan*, aipatzen dituen aholkuak, On Joxe Mielek emanak:

Kontalari izateko nahia behar duzu izan; lehen bidea nahia eta gozatzearena da. Horixe da lehen pausoa. Ipuinaren magia entzuleei gogo handiz igorri behar diezu.

Kontalari bilakatu nahi baduzu, ipuinak entzuten ikasi behar duzu.

Ipuinak kontalariaren barnean bizirik dirau. Kontalariok sentitu egiten dugu ipuina, eta berarekin batera bizi.

Hiru gara kontaktetan: ipuina, publikoa eta kontalaria.

Mundu zabaleko ohitura, usadio eta ekanduen berri eduki beharko duzu eta, zer esanik ez, gure ahozko tradizioaren bilduma eta lan nagusiak ezagutu behar dituzu: ipuin, kontu, mito, tradizio, ohiturak, Ikondairak...

Gogoan hartu hau betiko: "Bihotza isuri eta gainezka dagoenean mintzo da ahoa".

Badago zerbait kontalari guztiak arreta handiz lantzen dutena euren jardunetan: hasiera eta bukaera. Hasi, ipuin batekin hasi dugu hitzaldi hau. Orain bukaera datorrenez, hona hemen falta zena:

Asko munduan bezala, behin bazen neskatala kaskarina gaez zein egunez ametsetan zebilena. Edozein gauza begi bistan edo eskuartean zeukala, erratz magikoa hartuko balu bezala, bidaiatzen hasten zen eta munduari bira ematen zion abentura harrigarrietan murgilduta. Neskatala marimoto hark ahaztu egiten zuen non zegoen, norekin, nora zihoan... Eta bidaiak magiko haietatik itzultzen zenean, bakar-bakarrik aurkitzen zen: "Nire ama galdu da, nire ama galdu da!", oihukatzen zuen eta orduan inguruko nagusi guztiak neskatalaren amaren bila joaten ziren arrapalada batean. Orduan bai hasten zela benetakoa abentura! "Amatxo koitaduak zer egingo du ni gabe? Hauekin batera joango naiz eta nik neuk aurkituko dut", pentsatzen zuen neskatalak atsekabeketa. Baina zorionez ama agertzen zen, negarrez, urduri eta beti haserre. Ondoren, beti

heltzen zion eskutik eta dandarrez eramaten zuen etxera. Behin, amak beldurrez jota erabaki bat hartu zuen eta neskatilari esan zion oihuka: "Hemendik aurrera nire eskutik joango zara leku guztietara. Aditu!". Neskatilak ondo ulertu zuen amaren sentipen hura, izan ere bera ere batzuetan beldurtzen zelako abentura haietan, eta denbora luzean aritu zen ama laguntzen toki guztietara haren eskuari lotua. Bidaiak egiten jarraitu zuen hala ere: batzuetan, amaren besoa tximu bat salbatzeko igo behar zuen palmondo luze bat zela iruditzen zitzaion; beste batzuetan, 'Gora' itsasontziko masta zela eta ekaitz ikaragarri baten erdian zegoela... Neskatila handitzen joan zen, gutxi, baina handitzen, eta amari beldurra pasatu zitzaion. "Honezkerok badakit bakarrik ibiltzen", hori pentsatzen du berak, eta oraindik batzuetan galdu egiten da.

Ipuinak kontatzen aritzen naiz. Benetako edo ipuinetako abentura larri baten aurrean aurkitzen naizenean, amaren esku gozo hura gogoratzen dut eta gogor heltzen diot. Nirekin daramatzat aitxitxek itsasoari eta laminei buruz kontatzen zizkigun ipuinak eta, batez ere, irudi bat daramat nirekin, aitxitxe arratsalde-iluntzean hurrengo egunean erre behar zituen zigarro neurtuak paperean biltzen, sukaldeko leihotik itsasorantz begira. Bakarrik. Orain iruditzen zait, une haietan gau ilunetako itsasoaz, haizeaz, kresalaren usainaz pentsatzen ibiliko zela eta gogoratzen nola itsasoko gau ilun haietan amets egiten zuen etxean arratsaldeko partean zigarroak biltzen ari zela.

Egia edo gezurra, begi bien artean sudurra.

9. BIBLIOGRAFIA

Barandiaran, J.M. In *Mitología Vasca*. Txertoa argit.

Dueso, J. in *Lamiak eta sorginak*. Roger argit.

Zubizarreta, I. 2008. *Bularretik Mintzora disko-liburua*; Galtzagorri elkarteak sustatua.

Zubizarreta, I. 2009. "Bihotzaren taupadez", in Galeuska 2009. Ponentzia.

Rodari. J. 2009, in *Gramática de la fantasía*. Ed. Planeta